

SORGIN EHIZA

«Sugarren mende» egon ziren euskal emakume, gizon eta haurrak

Liburu honen tesia da sorgin ehiza izan zela espainiar koroaren lanabes politikoa, bai Nafarroan, bai Sizilian, Mexikon, Filipinetan... erresumak menderatutako herrietan, bertako erresistentzia boteretik kentzeko, eta kontrolatzeko», adierazi du Asisko Urmeneta idazle eta marrazkigileak, 1580. urtean Zugarra-

 **JENDARTEA** / Idoia ERASO

Asisko Urmenetak eta Helena Xurio Arburuak egindako «Sugarren mende» liburuak Inkisizioak Euskal Herrian izan zituen arrazoi politikoak agerian uzten ditu, egun hedatua dagoen emakume errebeldearen ideia ezeztatuz. Komiki formatuan, bestelako informazioak ere gehitzen dira, irakurketa historikorako tresna gisara.

Asisko Urmeneta
marrazkilaria eta Helena
Xurio Arburua
Zugarramurdin.
Guillaume FAUVEAU

murdin hasi eta 1616an Urdazubin bukatzen den lanaren oinarriari buruz.

Euskal Herrian horrek izan zuen eragina horrela azaldu du: «Aitzakia Zugarramurdiko prozesua da, baina horren bitartez kontatuko ditugu Nafarroan eta Lapurdin izan ziren sarekadak, bertan izan baitziren gehienak. Nafarroako Erresuma zen garaian, independentea zenean, mugarik ez zen, baina erori ze-



nean eratu zen muga berri hori nahi izan zuten garbitu Frantziako absolutismoak eta Espainiakoak».

Idazleek “Sugarren mende” egiterakoan oinarrian hartu duten bigarren tesia euskal herriarrok gure historia ezagutzeko dugun beharra izan dela azpimarratu du Urmenetak: «Geroztik izan den isiltasun ediktuak iraun du orain arte». Liburuan pertsonaia batek zera dio “isiltasun aginduari” buruz mintzatzean, «herri batek irabazi egin behar du bere historia kontatzeko eskubidea...», eta egileak bide hori egiten saiatu dira, sorginkeriaren kontrako ehiza Euskal Herriaren kontrako borroka izan zela jakinaraziz.

«Nahi dugu jendeak kontzientzia har dezala hemen egiazki zer gertatu zen, zer-nolako masakrea egin duten gure herrian, eta geroztik asimilazio prozesu batean gaudela. Duela 400 urte gertatu zena gaur egun ere gertatzen ari da, Altsasukoa da horren adibide. Mitoak eraikitzeari utzi behar diogu, eta gure historia ezagutzen hasi behar gara. Badakigu ez dela polita, baina gure herria da, gure errealitatea da», baieztatu du Helena Xurio Arburua zugarramurdiarrak.

«Inkiszioaren helburua ez zen feminizidioa; ez zen emakumeak zapaltzeko, herri bat zapaltzeko baizik», gaineratu du, eta bere kideak ideiarri jarraipena eman dio: «Salazar Frias inkisidoreak erraten du 1.800 kasuetatik 1.000 haurrak direla, eta bistan da emakumeen portzentajea handiagoa dela, baina epaileak, alkateak eta armadoreak gizarte oso baten kontra joan ziren. Ikazkinak, marinela... ehizatuen artean denetarik bazen. Etorri zaigun ideia emakumea dela, eta landareetan ibiltzen



zena, eta emagina zela, baina Euskal Herrian ez da horrela. Beste tokietan ez dakit, baina hemen ez».

Horren adierazteko «zifra ikaragarriak» ematen dituzte. «Beraien idatzietan oinarrituta, Espainiara egindako bidaia baten emaitzak dira 1.384 haur absolbituak, 14 urte baino gehiagoko 290 pertsona errekontsiliatuak eta 41 absolbituak. Beste konfesio batzuetatik atzera egindakoak 81 eta hirugarren pertsonak egindako 3.000 salaketa baino gehiago». Datu horien inguruan marrazkilariak gaineratu du:

«Sugarren mende» komikia bada ere, bestelako informazioa eskaintzen duten orrialdeak tartekatzen dira, gaiaren inguruan historian zehar egin diren adierazpen ezberdinak, esaterako. GAUR 8

«Ditugun zenbakiak ez dira onak, paper gehienak nahita desagerrarazi zituzten».

Emakumeen kontrako ehiza soilik ez zela izan nabarmentzearekin batera, gaiaren konplexutasuna ere agerian gelditzen da: «Bada politikatik, bada sozioekonomikotik, bada generotik, bada erlijiotik, badira hari anitz tiratzeko, lan hipotesi bakarra ezin onartuzkoa da. Sorginak zirela, akelarreak egiten zizutuztela; mandragora, apo larrutuak... eta horrelako pitokeriak egiten zizutuztela ez, ordea».

Bi estatu absolutisten artean gelditu zen Euskal Herria: «Es-

painiako fenomeno bat da alde batetik, eta Bordeleko tribunaletik errege komisioa Lapurdira abiatu zen, aprobeitxatu zuten marinela urrun zirela, nahi zutena egiteko. Ainhoan elkartu ziren bi aldeetakoak beren lana koordinatzeko. Ez dakigu Bordeletik etorritako Pierre Lancrek zenbat jende hil zuen, zifra ezberdinak ematen baitira; bada kigu garbitu zituenez gain 200 bat jende eramane zituela Bordeleko gaztelura preso, eta hiruzpalau urte beranduago oraindik hor zirela epaiketaren zain. Animalakeriaren dimentsioa ez dugu imajinatu besterik egiten ahal».

FORUAK, SORGINAK ETA AKELARREAK

Euskal Herrian dagoen «batza- rren eta igualitarismoaren kul- tura ez zuten ikusten ahal, ba- tzarretan gizonezkoek eta emakumezkoek parte hartzea Salamancako unibertsitateko domingotarrentzat onartezina zen», nabarmendu du diseina- tzaileak: «Inkisdoreek obsesio handia zeukaten foruekin, behin eta berriz agertzen da ba- tzartzea delitu bezala, esatea

EHIZAKIAK ETA EHIZTARIAK

Graziana Barrenetxea, Mikael Goiburu, Maria Presona, 9 urteko Mari Johan Xorro... dira liburuan aurkeztzen diren pertsona ehizatu eta torturatueto batzuk. Zenbait hilak izan ziren, besteak deserriratuak, ondasunak bahituak edo presondegian atxikiak. Obran agertzen direnak baino askoz gehiago badira ere, ezagutzen diren batzuen izenak eta bakoitzak pairatutakoak agerian utzi nahi izan dituzte egileek, duela lau mende izan

zen errealitatearen erakusle gisara.

Bestalde, horien kontra aritu zirenak ere ezagutzeko zenbait azalpen badira, Leon Aranibar espainiar erresumako Inkisizioko komisarioa, Pierre Lancr Frantziako estatu kontseilari eta Bordeleko demonologoa...


Sorgin ehizaren arrazoi politikoak agerian emanik, garaiko noble eta erreginen aurkeztapena ere egiten da ingurua hobeto ulertzeko.

deiadarra egin dutela eta jendea elkartu dela».

Hitzek gure pentsamendua eratzen dute, eta Xurio Arburarentzat erasoak izan ziren pertsonak definitzeko terminologia ez da egokia: «Orain 'sorgin' hitza aldarrikatzen dugu figura errebelde bezala, norbait horrela deitzea harro egoteko arrazoi bat dela; baina termino hori gure arbasoei Inkisizioak ezarri zien, hemen ez zen existitzen, eta beraiek hil ziren hori ukatzen». Hori dela-eta beste hitz bat proposatzen du berak: «'Ehizakiak' terminoa gustatzen zait, ehizatuak izan zirenak. Ez dut borreroen hitza hartu nahi».

Zugarramurdiar gisara ikusi duen eboluzioak kezkatzen du: «Haurrak ginenean ez genekien zein zen historia hori, ez genuen horren berririk, gero irakurrita jakin genuen gure arbasoak ez zirela gaiztoak, baina ez genuen errealtate krudel hori ikusi nahi. Pittaka-pittaka asmatu zen, eta asmatu da, eta orain Euskal Herrian nagusitzen dena da sorgin irudi hori, emakume libre, aske eta errebeldearekin, horrelako mito bat sortu da. Akelarreak ere aldarrikatzen ditugu, eta horrek alarma piztu zidan».

«Akelarre» hitzaren jatorriari lotuta, horren erabilera ere baztertzen dutela adierazi du marrazkilariak: «Hemen ez da akelarrerik izan, Espainiako inkisidoreek asmatutako hitz bat da, gure arbasoei egotzen zizkieten delituak hain larriak zirenez, ez ziren Nafarroako legeaz epaitzen ahal. Hori dela eta, salbuespeneko epaitegia sortu zuten Gaztelan eta bertara eraman zituzten, torturatzeke eta hizkuntza arrotz batean epaituak izateko. 'Akelarre' hitza asmaketa per-



«Nahi dugu jendeak kontzientzia har dezala hemen gertatu zenaz: Inkisizioaren helburua ez zen emakumeak zapaltzea, herri bat baizik, eta geroztik asimilazio prozesu batean gaude»

«'Sorgin' hitza aldarrikatzen dugu figura errebelde bezala, baina nik ez dut gure borreroen hitza hartu nahi; 'ehizakiak' gustatzen zait, ehizatuak izan zirenak»

fektua izan da jende hori guztia garbitzeko».

Akusatuak Iruñera ekartzeko Nafarroako Gorteen egindako eskaerak atzeman dituzte idazleek, baina «Inkisizioak ezetz erraten zuen, delituak latze- giak zirelako, niniei orratzez zulatzen zizkietela begiak, odola xurgatzen zietela sexutik,

Asisko Urmeneta idazle eta ilustratzailearen azken lana sorgin ehizaren ingurukoa da.
GUILLAUME FAUVEAU

kozinatu eta jaten... Kanibalismoa, banpirismoa, nekrofilia... asmatzen zituzten perbertsio guztiak ziren errateko, Logroño-ko kartzela sekretuetara eramateko. Jendea hiltzen zen sorgina zela ukatuz, ez zekitela zer zen sorgina izatea».

Terminoaren lehen aldiz Araitzeko prozesuan 1595ean agertu zela azaldu dute: «*La endrecera que denominan 'akerlarrea'*». Zugarramurdiko leizearen ondoan dagoen larre ezaguna, aldiz, Berroskoberro deitzen dela azaldu du Xurio Arburuak: «Aipatzen dute belardi horretan akelarreak egiten zirela, baina hori Inkisizioak errandako akusazioak dira, eta ez da egiaztatu».

HISTORIA EZAGUTARAZTEN

Ilustratzaileak liburua herriz herri aurkezten eta mintzaldiak ematen ari direla azaldu du: «Nahiko genuke aurkezpenetan jendearekin mintzatu, Euskal Herrian badugu interes berezia, sentitzen dugulako ez digutela ezer kontatu. Ez dakit Alemaniaren kasua zein den, baina hemen okupazio militar baten ondorio da, eta hori ez galtzea inportantea da. Nahiko genukeena da omentzea eta duintasuna ematea gure arbasoei, ez baitziren sorginak, jende libre izan zen. Herri okupatu batean libre izan nahi izateagatik makineria guztia beraien kontra jarri zen».

Gaur egun dagoen «folklorearen eta mitologiaren» kontrako bidea segitzea proposatzen du Urmenetak: «Ikastoletan lantzen dira, goazen osatzera unitate didaktikoak horri buruz, gure mitologia propioari buruz, ez Espainia eta Frantziako inkisidoreek egin zutena. Momentuz garaipena badute, baina guri dagokigu ez onartzea, behintzat».